

azpeitian zer?

udal aldizkaria



173. zenbakia



ENERGIA EREDU BERRIAK

Eskualdean kontsumo arduratsua, jasangarria eta garbia lortu asmoz, Energia Plana egin du Udalak eta eragileekin elkarlanean lantzeko Energia Mahaia osatu du



DENON ARTEAN

Herritarrekin landuko dira aurrekontuak eta legegintzaldirako asmoak



ONGIZATEA

Arropa eta elikagai bankuak jarri ditu abian Udalak behar gehien dutenei laguntzeko




Ale honetan zer?

- 3 Azpeitia ezagutzen eta erabakiak
- 4 Ekonomia sendotzen
- 8 Guztion ongizatea helburu
- 10 Azpeitia jasangarria
- 14 Azaroak 25
- 16 Oroimena
- 18 Eraikitzen
- 19 Motxak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailtza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Alkoholiko anonimoak	629 14 18 74

Botika txandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74 • Abenduaren 16, 18, 24 eta 28.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2, • Tel.: 943 81 13 50 • Abenduaren 19, 20, 21 eta 30.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49 • Abenduaren 15, 25, 26, 27 eta 29.


EIZAGIRRE. Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74 • Abenduaren 11, 17 eta 23.

JACOME. Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58 • Abenduaren 13, 22 eta 31.

Azpeitia ezagutzen



Inaxi eta Patxi pertsonaien bidez, Azpeitiko historia ezagutzeko balioko diguten herriko datu esanguratsuak ikasteko aukera izango dugu aurrerantzean tarte honetan. Ezagutu Azpeitia, bere historia eta ondarea!



IRAURGI ETA AZPEITIAREN SORRERA

1027. urtean agertzen da Iraurgiko bailari buruzko lehenengo aipamena agirietan; Iruñeko Elizbarrutiaren barruan kokatzen zen, eta egungo Azpeitia eta Azkoitiko lurraldeak hartzen zituen bere baitan.

Hala ere, kokapen geografikoaren eta monasterioen araberrako banaketa zegoen; Soreasuko eta Baldako Santa Maria monasterioaren araberrakoa, hain zuzen ere, ondoren Azpeitia eta Azkoitia hiribilduek hartuko duten lur eremua.

Erabakiak

Azaroaren 3ko bilkuran hartutako erabakiak hauek izan ziren;

- 1.- Azpeitiko Udalaren eta Urola Erdiko Mankomunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena eguneratzea aho batez.
- 2.- Loiolako "Turbina" etxea zegoen lursailaren erabilerarako hitzarmena aho batez onartu zen.
- 3.- Euskalerniaren Adiskideen Elkarteen eta Azpeitiko Udalaren arteko hitzarmena aho batez onartu zen. Hitzarmenari esker, elkarteen argitalpenak edota artxibo partikularak Azpeitiko Udalean gordetako dira.
- 4.- Azpeitiko Izarra eremuan Etxebeltz-Izarra R-5 Promozioak S.L.k egindako lokalen lagapena onartu zen aho batez.
- 5.- Urola Erdiko Energia Plana aho batez onartu zen.
- 6.- Ekonomia sustatzeko dirulaguntza helburua duen Azpeitiko eta Azkoitiko udalen eta Iraurgi Lantzen S.A.ren arteko lankidetzaren hitzarmena EH Bilduren aldeko bozkekin onartu zen. EAJ abstenitu egin zen.
- 7.- Azpeitiko Udalaren eta Loiola Berrikuntza Fundazioaren arteko hitzarmena EH Bilduren aldeko botoekin onartu zen; EAJ abstenitu egin zen. Hitzarmenaren helburua Urola Erdia eskualdean garapen sozioekonomikoa eta enpleguaren sorrera bultzatzeko.

Azaroaren 23ko bilkuran hartutako erabakia honako hau izan zen:

- 1.- Abenduak 20ko hauteskunde orokorretarako mahaietan egon beharko duten herritarren zerrendaren zozketa egin zen.

Abenduaren 1eko bilkuran honako erabakiak hartu ziren:

- 1.- Udalbatzak 2015eko azaroaren 3an, azaroaren 10ean eta azaroaren 23an egindako bilkuren aktak onartu ziren aho batez.
- 2.- Azpeitiko Udalaren eta Sanjuandegi Auzoko XJ Elkarteen arteko hitzarmena aho batez onartu zen. Hitzarmenari esker, igerilekuko eraikineko behe solairuan Sanjuandegiko auzotarren erabilerrako lokal bat uzten da.
- 3.- Urola Erdiko Mankomunitatean beharrezkoak diren organuak: Kontuen Batzorde Berezia eta Kontratazio Mahaia eratu ziren.

Mozioak:

- 4.- Euskararen Nazioarteko egunean Azpeitiko Udalaren adierazpen instituzionala aho batez onartu zen.
- 5.- Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguneko adierazpena aho batez onartu zen.
- 6.- GEHITUk HIESaren amaiera emateko abenduaren 1ean nazioarteko egunerako proposatutako deklarazioa aho batez onartu zen.

Enpresen elkarlana eta berrikuntza sustatzeko pausoak ematen ari da Udala

Eskualdeko udalak, ikastetxeak eta enpresak elkarlanean ari dira eta topaketak egin dituzte lehentasunak finkatzeko. Bestetik, Hornitu programa aurkeztu da



 Iraurgi Berritzenek egindako topaketa.

Enpresen arteko elkarlana eta berrikuntza indartzeko lanean jarraitzen du Azpeitiko Udala. Hala, eskualdeko eragile sozio-ekonomikoekin topaketak egin ditu eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburua duen Hornitu proiektua aurkeztu du.

Berritzenen kontsolidazioaren berri eman zen, eta aurrera begira enpresa, hezkuntza eta erakundeekin garatu beharreko lan lerroen inguruan eragileek egindako ekarpenak jaso ziren.

Azkenik, eskualdearen enplegua eta langabeziaren datuen eboluzioa ere aztertu zen eta horrekin batera, ekintzailetasuna sustatzeko bi udalek, Iraurgi Berritzenen eskutik, bultzatutako diru laguntzen emaitzak agertu ziren. Amaitzeko, eskualdeko enpresek, hezkuntza zentroek eta udalek elkarlanerako konpromisoa berretsi zuten eta honako lerroak jarraitzea finkatu zuten:

- Formakuntza eskaintza sendotzea langabetuak lan merkatuan sartzeko.
- Ekintzailetasun eta esfortzuaren kultura sustatzea, testuinguru aproposa sortuz.
- Lidergo konpartitua garatzea, eraldaketa gidatuz.
- Internazionalizazioa nola landu aztertzea, enpresen tamainaren arabera.

Hornitu proiektua

Urola Erdiko enpresen lehiakortasuna eraldatzeko eta hobetzeko Hornitu proiektua aurkeztu du Udala. Egitasmoarekin, eskualdeko enpresa traktoreen eta hornitzaileen arteko elkarlana sustatu nahi da herriko eta eskualdeko aktibitate ekonomikoa indartzeko asmoz. Aurkezpenean, eskualdeko enpresa traktore nagusienek hartu zuten parte (Glual, Sarralle, Ibarmia, Juaristi, Sammic, eta Domusa), beste 22 enpresarekin. Abiapuntua, 2014ean egindako ehun ekonomiko-industrialaren egoeraren diagnostikoa izan zen, Industri Maparen ondorio nagusiak azalduz.

Enpresek parte-hartzeko konpromisoa azaldu zuten eskualdeko ekonomia indartzeko eta lehiakortasuna garatzeko aukera berriak azpimarratu zituzten. Honela, erronkei erantzuteko, Horniturren baitan proposatzen diren ekintza lerroak aurkeztu ziren:

- Enpresa industrialen gaitasunen difusioa, katalogo online bidez.
- Enpresa traktore eta hornitzaile artean bisita eta jardunaldiak sustatuko dira, beharrezko proiektuak abian jartzeko.
- Iraurgi Berritzenetik bitartekaritza zerbitzua eskainiko da, identifikaturiko proiektuak bideratzeko.

Lanean jarraitzeko, lan talde desberdinen egituraketa egin da: Subkonjunto mekanikoen muntaia, mekano-soldatu amaituen hornitzaileak eta injenieritza mekanikoen lan desberdinak.

Inaziotar Bidea: Erroma, Paris, Manresa... eta Azpeitia



Hala, bisitak iraun duen egunetan, elkarlanerako dauden aukerak aztertze bilerak egin dituzte. Sakontasunean landu beharko diren elkarlanerako proposamenak egin dira, eta bertaratu direnak balorazio positiboa egin dute. Honela, oso interesgarritzat jo dute kudeaketen ete esperientzien elkartrukea, eta hala nola, Inaziotar patrimoniaren inguruko turismo erlijioso eta kulturalaren baitako aportazio tekniko eta espiritualak.

Horrez gain, bisitariak bertatik bertara ezagutu ahal izan dituzte Manresan kokatzen diren Inaziotar gune garrantzitsuenak eta, era berean, 2022 urtera begira burutzen ari diren lanak ezagutu dituzte. Hau horrela, inauguratzearen Interpretazio Zentroa eta erromesari harrera egingo dien eskultura baten proiektuaz gozatzeko aukera izan dute.

2022an, Loiolako Inazio Manresara iritsi zela 500 urte beteko dira eta data garrantzitsu honen baitan, Inaziotar guneetako kudeatzaile europarren lehen bilkura egin da Manresako hirian abendu hasieran.

Bertan parte hartu du Azpeitiko Turismo saileko zinegotzi den Agustin Lizarralde, Erroma eta Pariseko Inaziotar guneetako, Manresa Turisme eta bertako turismo bulegoko, Ruta Marianako, Generalitateko turismo saileko eta Montserrateko ordezkariekin batera.

Bidai agentziek osatutako talde batek Azpeitia bisitatu zuen azaroan



Bidai agentziek osatutako talde batek Azpeitia bisitatzen izan zen azaroan. Bisitaldia Loiolan abiatu zuten eta handik, Azpeitira iritsi ziren eta astearte izanik, azoka egunaz gozatzeko aukera izan zuten. Era berean, Azpeitiko txoko eta gune esanguratsuenak bisitatu zituzten; Alde Zaharra, garbitokia edo alberga, parrokia eta Bakardadearen Kapera, Madalenako ospitalea eta Tren Museoa. Bisitan zehar, gainera, Eneko Etcheberria alkatearekin eta Agustin Lizarralde turismo saileko zinegotziarekin egoteko aukera izan zuten. Talde honek Azpeitiko ekonomia eta turismoa sustatzen lagunduko du aurrerantz.

Landa eremu berritzaileena

Urkome elkarteak, Azpeitiko Udalaren laguntzarekin, landa eremua indartzeko helburua duten proiektu berritzaileak saritu ditu



Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkarteak amankomunean ematen dutena

Titulua: HOST'ARTE

Deskribapena: Landare espezie eta barietate askoren hostoak lantzen dira ekoizpen ekologikoan eta gainera bizirik eskeintzen dira formatu desberdinetan.

Egilea: IRATXE MANZISIDOR

Nekazaritza jardueraren sustapena atalean

Titulua: INTXAUR OLIOA

Deskribapena: Intxaurrari balio erantsia emateko asmoarekin, olio bihurtzea da helburua. Gainera, soberakinarekin abereentzat elikagaia egin daiteke hurrengo fase batean.

Egilea: JON ARRUTI

Landa eremuko jarduera ekonomikoaren sustapena

Titulua: ATXOLA

Deskribapena: Ekoizpen ekologikoan oinarriturik, barazki eta plantelen jarduera, sukaldaritzako zein sendabellarren ekoizpena eta hazkuntza eta fruitu txikien ekoizpenak hartzen ditu bere baitan.

Egilea: UNAI MUJICA

Landa eremuko balio-aniztasuna agerian jarri

Titulua: IPINABARRAK ETA SAGARRAK

Deskribapena: Proiektu honen helburua da sagardoaren inguruko kultura gizarteratzea bisita gidatuen bitartez. Era berean, Urola Kostan daukagun aberastasunaren berri ere eman nahi da. Ibañarieta auzoa da ardatza eta landa-eremu hau ikusgai jartzea da gure xedea. Gainera, sagardoak itsasoarekin duen lotura ere aipatzen da.

Egilea: AITOR EIZMENDI

Landa eremuetako azpiegitura eta zerbitzuak bermatzeko saria, epaimahaiak hutsik uztea erabaki du.

Urkome Urola Kostako Landa Elkarteak Urkome Sarien IV. edizioa antolatu du aurten eta azaro amaieran jakinarazi zituen aurtengo irabazleen izenak. Azkoitiko udaletxean egindako sari banaketan izan ziren Ainhoa Beristain Azpeitiko zinegotzia, Javier Zubizarreta Azkoitiko alkatea, Ana Eizagirre Urkomeko presidentea, Igor Iturain Urola Kostako Udal Elkarteak lehendakaria eta Maite Andres HAZI-ko teknikaria.

Guztira, 13 proiektu aurkeztu dira aurtengo sariketara eta 5 izan dira sarituak. Lau sari epai-mahaiak aukeraturako proiektuen egileek jaso dituzte; bosgarrena, berriz, bozka gehien jaso duen proiektuak irabazi du.

Guztira 13 proiektu aurkeztu dira aurtengo IV. Urkome lehiaketara eta 5 izan dira saritutako proposamenak

Azaroaren 23tik 30era bitartean 838 bozka eman zituzten erabiltzaileek, eta botoen %57 jaso zuen bozka-bidezko sari berezia jaso duen proiektuak; Iban Sabalzaren LANLUR proiektua.

Gainontzeko sarituak honako hauek izan dira;



Aurrekontuak eta legegintzaldiko egitasmoak, elkarlanean

Denon Artean prozesu parte-hartzailea abian jarri du Udalak eta bilera irekia abenduaren 23an egingo da zirriborroa aurkeztu eta azken ekarpenak jasotzeko

Elkarlanean egindako lanaren emaitzak hobeak dira. Horretan sinesten du Azpeitiko Udalak eta elkarlan hori arlo guztietara zabaltzeko bidean, politika herritarrekin eta herritarrentzat egiteko hartutako konpromisoa sendotzen jarraitzen du. Honela, 2016 urteko aurrekontuak eta legegintzaldirako asmoak herritarrekin eta eragileekin adostuko dira eta auzo-alkateak berritzeko prozesua auzotarrekin batera eramango da.

“Azken urteetan egindako lanari esker, Udala eta herritarrak gero eta gertuago daude. Hala ere, lanean jarraitu behar dugu. Honela, kirola, kultura, hezkuntza, gazteria, euskara, berdintasuna, jaiak, eta bestelako eragileekin hitz egingo dugu, aurrekontuak eta hasi berri dugun legegintzaldirako asmoak joratzeko”, agertu du Josu Labaka zinegotziak. Hala, hurrengo urteko aurrekontuak osatzeari ekin dio Udalak. 2016 urteko aurrekontuak 3 iturritatik elikatuko dira:

- 2025 Plan Estrategikoa
- Alderdi politikoen eta Udal teknikari eta langileen ekarpenak
- Herritarrak

“Aurtengo aurrekontuak tesitura ekonomiko hobeagoan planteatzen ditugu, iazkoarekin alderatuz, 2 milioi gehiago izango ditugu”

“Aurtengo aurrekontuak tesitura ekonomiko hobeagoan planteatzen ditugu, iazkoarekin alderatuz, 2 milioi gehiago izango ditugula uste dugu eta beraz, inbertsioetarako diru gehiago izango dugu”, azaldu du Eneko Etxeberría alkateak.

Herritarren iritzia eta ekarpenak pisu berezia izango dute prozesuan zehar, eta horretarako baliabide desberdinak jarri dira azpeitiarren esku; buzoiak, webgunea eta bilerak. Aurrekontuak osatzeko bideak zabalik daude beraz, eta abenduaren 23an azken bilera irekia egingo da, zirriborroa aurkeztu

eta azken ekarpenak jasotzeko: “Herritarrak bertan parte hartzera deitu nahi ditugu. Izan ere, ahalik eta ekarpen gehien bildu nahi dtugu, ondoren, eta urtea amaitu aurretik, aurrekontuak udalbatzan onartzeko”, azaldu du Ogasun batzordeburua den Estitxu Elduaienak.

Auzo-alkate berriak

Azkenik, auzo-alkateak berritzeko prozesua abiatu du Udalak. Auzo-alkateen figura 2012 urtean berreskuratu zen, auzotarren beharrei hobeto erantzun eta eurekin elkarlana sendotzeko asmoz. Hala, Lasao, Matxinbenta, Urrestilla, Nuarbe, Elosiaga eta Aratz-Errekako auzotarrek euren ordezkariak aukeratu zituzten, eta auzo horietako auzo alkateak elkarlan hori indartzeko lanean aritu dira urteotan.

“Hiru urte pasatu dira ordutik eta, partaidetzako udal agintarauak jasotzen duen bezala, auzo alkateak berriro ere aukeratzeko garaia iritsi da. Hautagaik aurkezteko epea zabaldu zen eta aukeratzeko prozesuari ekingo dio Udalak, auzoz auzo”, gaineratu du Labakak

Behar gehien dutenei laguntzen

Azpeitiko Udalak, herritarrekin elkarlanean, arropa eta elikagai bankuak jarri ditu abian



Arropa bankuko boluntarioak Udal ordezkari eta teknikariek.

azpeitiar guztien babes soziala, batik bat, behar gehien dutenena, bermatzea da Azpeitiko Udalaren lehentasuna. Are gehiago, behar larria duten azpeitiarren ongizatea. Horregatik, behar gehien dutenei zuzendutako arropa eta janari bankuak jarri ditu abian.

Arropa bankua Elkar-ekin taldearekin elkarlanean jarri da martxan eta Soreasuko Elkargunean eskaintzen da zerbitzua. Arropa bankuak herriko 170 herritar eta familiari banatuko dizkiete arropak dohain, aurrerantzean.

“Udalaren helburua herritar guztiek gutxieneko baliabide eta eskubideak bermatuta izatea da. Herritarren ekimenez sortutako proiektua da arropa banku hau, eta azpeitiarrek, beste behin, erakutsi dute elkartasunaren eta justizia sozialaren defentsan lana egiteko prestutasuna dutela. Hori balio garrantzitsua da guretzat, eta halako pertsonekin lan egitea plazerra

da”, agertu du Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu den Ainhoa Beristainek.

Arropak behar dituzten herritarrek Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik igaro behar dute eta udaletxetik, Elkar-ekin taldera bideratuko dira familia hauek.

Bestalde, arropak eman nahi dituzten herritarrek ostiral arratsaldeetan eta zapatu goizetan izango dute horretarako aukera, Soreasu eraikinean kokatzen den Elkargunean bertan.

“Azpeitiko Udalaren helburua herritar guztiek gutxieneko baliabide eta eskubideak bermatuta izatea da”

Gainerako egunetan, berriz, Plaza Txikian dagoen Gazte Informazio Bulegoan (GIB) utzi ahal izango dira honako ordutegian;

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 13:00etara
- Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan 16:30etik 20:00etara

Arropa bankuko arduradunek herritarrek animatu nahi dituzte arropak Elkargunera eramateko, izan ere, orain arte azpeitiarrak arropa asko uzten ari badira ere, gehiago behar da hala ere; “Gu lanerako prest gaude, gustura ari gara lanean, baina jendeak arropak ekartzea behar dugu. Caritas eta Udalarekin hartu-eman daukagu eta lanean segituko dugu. Orain bertan, zortzi eta hamalau urte bitarteko haur eta gazteentzat arropak eta haur kotxeak eta sehaskak behar ditugu batik bat”, azaldu du Maria Luisa Irulegi Elkar-ekin taldeko kideak.



Elikagai bankuko boluntarioak Udal ordezkariekin.

“Elkarlan honek fruitu onenak eman ditzala eta herritarrek parte hartzera animatu nahi ditugu”, amaitu du Beristainek. Informazio gehiago nahi duenak edo harremanetarako, Udal Gizarte Zerbitzuetara deitu behar da, 943 15 71 92.

Janari bankua

Bestetik, elikagai bankua dago. Zerbitzua 2010ean jarri zen abian Baigeran, baina duela hiruzpalau urte, baina, Udalak Urola kalean duen biltegira aldatu zuen.

Lokala egoera kaskarrean zegoen eta Udalak, txukundu eta egokitu egin du. Janariaren bila joaten direnei “leku duina eta txukuna eskaintzeko egin dira egokitzenak eta hala, lokala margotu, argi gehiago ipini eta komun bat ere jarri da, jakiak ahalik eta modu egokienean gordetzeko eta bertan lanean aritzen diren herritarrei lokal eta gune duin bat eskaintzeko”, esan du Estitxu Elduaen zinegotziak.

Gaur egun, elikagai bankuak Azpeitiko 195 familiari ematen die jatekoa hilero. Eskariak Gizarte Zerbitzuetatik bideratzen dira, eta lehen hiru hilean behin egiten bazuten ere, orain, hilero egiten dute banaketa. Jakiak Europako Fondo Sozialak eta Balarako Elikagai Bankutik jasotzen dituzte. Jasotakoaren kudeaketa eta banaketa, berriz, Urola kaleko biltegian egiten dute. Herritarrek ere eraman ditzakete jakiak, horretarako, elikagai bankuko boluntarioei edo Gizarte Zerbitzuetara deitu behar da.

Azpeitiko Udalak eskerrak eman dizkie elikagai bankuan musutruk lan egiten duten 6 boluntarioei: “Erakusarazi egin behar da egiten duzuen lana. Azpeitia herri solidarioa da, eta zuek muxutruk lan asko egiten duzue. Zuen lanagatik ez balitz, beharrea daudenak oraindik eta egoera zailagoan leudeke. Gutxieneko eskubideak bermatzea gure egitekoa da, eta boluntariook egiten duzuen lana eskertu egin behar da; balioa eman behar zaio egiten duzuen lanari”, amaitu du Elduaen zinegotziak.

Boluntariak lana eta beharra duten herritarrek baldintza duinak izateko helburuarekin egin dira lanak elikagai bankuan





 Eskualdeko Energia Mahaia bilduta Azpeitiko Sindikatu Zaharrean.

Energia arduratsua, jasangarria eta garbia

Azpeitiko Udalak, eskualdeko gainontzekoekin batera, Energia Plana jarri du abian eta Energia Mahaia osatu du herritarrek sentsibilizatzeko helburuarekin

2013 urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herriarren Partaidetzako Zuzendaritzak eta Ogasun Zuzendaritzak Aurrekontu Parte Hartzaileen prozesua jarri zuten martxan Urola Erdiko eskualdeko herritarrekin, (Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil eta Zestoa). Prozesuan zehar, herritarrek beren intereseko gai multzo bat hautatu zuten, 2014ko foru aurrekontuen kargura. Gai horietako bat energia izan zen eta horren inguruan neurriak hartu beharra zeudela ondorioztatu zen.

Testuinguru honetan, 2014ko aurrekontu parte hartzaileen prozesuan, energia gaiak jarraipena izan zuen eta eskualdeko energiaren diagnostiko bat egin zen. Diagnostikoan, bailarako kontsumo energetikoa aztertu zen, besteak beste, etxebizitzek dituzten ezaugarriak eta zer aukera dituen eskualdeko energia

berriztagarria ezartzeko. Ondorio nagusi bezala, energia berriztagarria sortzeko aukerak ikusi ziren: biomasa eta eguzki energia, haize energiaren baliabideak... "Energia gastatu egiten da, nahiz eta murriztu daitekeen. Beraz, erabiltzen den energia berriztagarria izatea da helburua", agertu du Carmen Martinez de Lejarzak, energiaren proiektua kudeatzeko kontratatutako teknikariak.

Urola Erdia eskualdeak energia berriztagarria sortzeko aukerak ditu; biomasa eta eguzki energia, haize energia baliabideak...


Modu honetan, 2015eko uztailaren 17an Urola Erdiko Energia Plana zehaztu zen eta era berean, Eskualdeko Energia Mahaia osatu zen, Energia Planeko ekintzen exekuzioaz arduratzeko. Energia Mahaia Azkoitiko, Azpeitiko, Beizamako, Errezilgo eta Zestoako udalek, Ingurugiro Fundazioak, Urkome elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hridaulikoko Departamentuak, Elkar-ekin taldeak eta Piztu Lan-Taldea gizarte eragileak osatzen dute eta Iraurgi Berritzenek proiektuaren koordinazioa eta kudeaketa daramatza.

Egun, Energia Planean proposatzen diren ekintzen garapena burutzen ari da Energia Mahaia, Planaren helburuak betetzeko. Helburu hauek bi mailatan sailkatuta daude, ondorengo irudian ikus daitekeen bezala:

ENERGIA PLANAREN HELBURUAK

EPE LABURRERA

- Udal bakoitzak bere lehentasunak zehaztea.
- Lehentasun horiek amankomunean jarri eta aurrera eramango diren ekintzak zehaztea.
- Momentuz dagoen aurrekontuarekin, ekintza horiek martxan jartzea.



EPE LUZERA

- Ekintza ezberdinen bidez, eskualde mailan energia planak markaturiko bidea jorratzea.
- Ekintza horien deskribapena egin eta martxan jartzea.
- Epe luzerako energia estrategia baten garapena sustatzea.

Ekintza Plana berriz, hiru lerrotan banatuta dago. "Batetik, kontsumitzaileen ikuspuntutik begirata: etxeetan erabiltzen den energia nola aurreztu, adibidez. Bestetik, energia produkzioaren bideak nola aprobetxatu lantzen ari gara. Azkenik, ekonomia dinamizatzeko ardatz gisa energia nola erabili ere hizpide dugu", esan du Martinez de Lejarza teknikariak. Honela, 5 ekintza lehenetsi dituzte;

1. Fakturaren sistematizazioa: fakturen sistematizazioa eta fakturen analisia egin, zenbateraino ordaintzen den jakiteko eta faktura murriztea posible al den aztertze.
2. Erosketa-zentral energetikoa: Arlo Pribatutik bideratzen ari diren erosketa zentrala, eragile publikoekin erlazioan ipini. Eragile publikoek bat egin eta energia merkeago lortu ahal izateko helburua du.
3. Lehen sektorea: kontadoreen aldaketak erakarri duenaren ondorioz, aholkularitza bideratu.

4. Merkataritza: sensibilizazio, faktura irakurketa edota aholkularitza ireki eskualdeko merkatarien elkarteekin.

5. Sensibilizazio kanpaina orokorrak: eskualde mailan garatzen diren energiaren inguruko ekintzen koordinazioa eta proposatu litezkeen sentsibilizazio ekintzen garapena.

"Azpeitiko Udalak denbora darama fakturak sistematizatzen eta hau eredu hartuta, bailarako beste udalak horretan hasi dira"

"Ekintza batzuk udalek egin behar dituzte, eta beste batzuk herritarrentzat sortuak dira. Esaterako, udaletxeetan hasi dira faktura guztiak aztertzen, ikusteko non eta zertan gastatzen duten energia eta alferrikako gastuak saihesteko. Azpeitiko Udalak denbora darama horretan, eta hura eredutzat hartuta, beste lau udalak horretan hasi dira. Lana eskatzen du, baina neurri sinplea da, eta ekarpen handia egin dezake", azaldu du Martinez de Lejarzak. Energia gaiaren inguruan herritarrek sentsibilizatu eta Energia Mahaia egiten ari den lana komunikatzeko, Energia Jardunaldiak egin ziren azaroan eta erakusketa bat, hitzaldi-mahai ingurua eta tailerrak antolatu ziren, besteak beste. Azpeitian, energiaren kontsumoaz eta eredu berriaren inguruan solasaldia egin zen. Sanagustin Kulturunea herritarrez bete zen Aitor Urresti Gure Energia taldeko kidearen, Xabier Zubialde Sustrai Erakuntza Fundazioko ordezkariaren eta Olatz Azurza Goienerreko kide eta boluntarioaren iritzi eta ekarpenak entzuteko.

Ur beroa eta argiteria kontsumoa murrizten



Azpeitia energia aurrezteko alorrean, punta puntako udalerrria izatera iritsi da azken urteetan emandako pauso guztiei esker

Azpeitiko Udalak urteak daramatza energia aurrezteko pausoak ematen eta 2015 urtean, proiektu aitzindaria jarri du abian. Sanjuandegiko Barrenetxe auzoan ur beroko iturburuko emaria igerilekura bideratu du eta oraindik, emaitza zehatzik ez badago ere, aurreikuspenen arabera, gas naturalaren kontsumoaren urteko zenbatekoa 111.380 eurokoa bazen, instalazioa berriarekin urteko 23.000 eurokoa izatea espero da. Izan ere, bero-ponpa berriak, gas naturalaren kontsumoa %80 ordezkatzen du. Hau da, lehen igerilekuko energia kontsumoa 1.803.000 kilowatt-ekoa bazen orduko, bero-ponpa sistemak 1.400.000 kilowatt ordezkatzen ditu. Falta diren kilowatt-ak, berriz, galdara zaharrek ematen dute.

Horrez gain, kontsumo energetikoa murrizteko beste hainbat ekimen ere egin ditu Udalak. Zentzu honetan, argiteria publikoa hobetzeko pausoak daude. Azpeitiko Udalak 2013an onartu zuen, aho batez, Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa eta plana osatzeko prozesuan, energiaren gaiari



tratatendu berezia eman zitzaion, lerro estrategiko oso bat energiaren ingurukoa izanik. Lerro estrategiko horren baitan, mota desberdinetako ekintzak aurreikusten dira baina denak eraginkortasun energetikoa, kontsumoen murrizketa eta energia berriztagarrien ezarpenarekin zerikusia dutenak dira.

Honela, pausoz pauso, energia aurrezteko neurriak hartzen joan da Udala azken urteetan, eta energia kontsumoa sistematikoki kontrolatzen joan da, Azpeitia energia aurrezteko gaien punta puntako udalerrria izatera iritsiz. Orain arteko emaitzak oso positiboak diren arren, lan gehiago egiteko dago eta zentzu horretan, beste neurri bat hartu du; Alde Zaharreko eta Paulo VI-ko argiteria publiko guztian LED sistema ezartzea. Guztira 236 argi puntu egokituko dira LED sistemara, 205 Alde Zaharrean eta 31 Pablo IV-n.

Azpeitiko Alde Zaharreko "fernandino" izeneko farola klasikoak eta Paulo VI-ko argiteria LED optikora egokitzeko lanek 84.000 euroko aurrekontua izango dute, baina 5-6 urtetan amortizatuta egotea aurreikusten da. Are gehiago, espero diren diru-laguntzak lortuz gero, 2-3 urtetan amortizatuko litzateke. Gainera, sistema berria ezarritakoan, elektrizitatearen kontsumoa eta kostua gaur egunekoarekin alderatuta, 3 aldiz jaistea lortuko da. Bestalde, aipatu beharra dago LED sistemaren bizi-iraupena aurreko lanparekin alderatuta, gutxienez 10 aldiz luzeagoa dela (era honetan mantentzen diren kostuak ere nabarmen beherantz egingo dutelarik).

Azpeitiko Udalak Alde Zaharra eta Pablo VI gunetako argiterian egindako aldaketek esker, energia kontsumoan eta ondorioz, gastuetan aurrezteko espero denaren adibidea taula honen bidez ikus daiteke:

GUNEA	GAUR EGUNGO POTENTZIA	ALDAKETA ONDORENGO POTENTZIA	URTEAN AURREZTUTAKO POTENTZIA	URTEAN AURREZTEN DEN DIRUA
ALDE ZAHARRA	35 kW	12kW	96.600 kW/h	13.524 euro
PABLO VI	6,40 kW	2,30 kW	17.220kW/h	2.411 euro
GUZTIRA AURREZTUA			113.820kW/h	15.935 euro

Honela, 4 bat urteren epean herri guztiko argiteria sistema egokitzea nahi da. Kontuan izanik Udalak urtean 1.880.054 kWh kontsumitzen dituela argiterian (udalaren kontsumo elektriko guztiaren %52,85 da berau), eta honen kostua 252.208 eurotako dela, argiteri sistema guztia LED sistemara pasatu ostean, urtero 168.138 euro aurrezteko espero da.

Neurri hauekin, eta argiteriaren potentzia murrizketarekin eta gaueko orduetan fluxu erregulazioarekin jarraituz, energia murrizteko pauso garrantzitsua ematen jarraitzen du Udala.

Neurri guzti hauekin, energia murrizteko pauso garrantzitsuak ematen jarraitzen du Azpeitiko Udalak



Energia eta kontsumoa murrizteko ekintzak ordea, ez dira unekoak, urtean zehar uneoro ematen ari da pausoak Udala;

Ekintza txikiak: Eraikinen energia kontsumoa txikiagotzea helburu hartuta, Udala aldaketa txikiak egiten ari da. Hauen artean daude: Eraikinen Energia Auditoretzak, lanpara eta luminariak, teknologia eraginkorragoa du-

tenez aldatzea; berokuntza sistematan hobekuntzak; eraikinen monitorizazio energetikoa...

Ekintza handiak: Kontsumo energetiko handieneko puntuak inbertsio garrantzitsuak eskatzen dituzte aurrezki adierazgarriak lortzeko. Udala pauso irmoz lanean ari da norabide honetan eta momentu honetan eskala handiagoko proiektuekin dihardu.



 Azaroaren 25ean ekintzen artean, herriko puntu ilunak aztertu zituzten emakumeak.

Egunero izan dadin azaroaren 25a

Azpeitiko Udalak emakumeenganako indarkeriaren aurka lan egiten jarraitzeko konpromisoak hartu ditu

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna urtean behin gogoratzen da, azaroaren 25ean, baina Azpeitiko Udal Gobernuaren asmoa, egun berezia urte guztian zehar izatea da. Izan ere, eguneroko lana izan behar du emakumeenganako indarkeriaren aurka lan egitea, egunen batean, indarkeria matxistako kasurik ez dadin egon.

Izan ere, egiten den guztia ez da nahikoa. 2015ean zehar 8 indarkeria matxista kasu berri ezagutu dira udaletxean, guztiak 27 eta 41 urte bitarteko emakumeak. Udal ordezkariak azaldu dutenez, datu hauek erakusten dute "oraindik ere emakumeenganako indarkeria gaur egungo

gizartearen arazo larrienetarikoa dela, eta guztiok erantzunkizuna dela arazo honi irtenbidea ematea". Horregatik, Azpeitiko Udalak gogor salatu nahi ditu indarkeria mota guztiak:

2015 urtean zehar, Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuak sailak indarkeria matxistaren 8 kasu berri artatu ditu

"Erailketak, eraso fisikoak, bortxaketak, abusu sexualak, mehatxuak, oihuak, irainak, umilazioak, mespretxuak, umore sexista eta publizitate sexista, kontrol mota guztiak, e.a. Eraso guzti guztiak dira larriak, kasu denetan urratzen baitira emakumeen eskubideak", adierazi du Estitxu Elduairen zinegotziak.

Aurrerantzean, pausoak ematen jarraitu behar da indarkeria mota guztiakin amaitzeko. Horren jakitun da Udala eta hala, bere arduraz jabeturik, konpromiso hauek hartu zituen abenduko udalbatzan:

- Arazo honi irtenbidea emateko eremu guztietan emakume eta gizonen eskubide

eta aukera berdintasunean urratsak emateko bitartekoak eskainiko ditugu.

- Azpeitiko Udalak 2016ko aurrekontuetan ere berdintasun politikak indartzeko konpromisoa hartzen du, eta norabide horretan emakumei arreta hobetzeko protokoloa hobetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.



- Prebentzio lanak duen garrantziaz jabeturik, hezkidetzaren proiektua zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu.

- Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen jabetze prozesuak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du.

Helduek euskararen ikasturteari ekin diote

Euskalduntze ikasturte berrian 150 heldu hasi dira; euskaltegian 105 herritar, Auzoko egitasmoan, 10 lagun eta Mintzalagun ekimenean, 35



 Euskalduntze ikastaroetan parte hartzen ari diren azpeitiarrak udal ordezkariekin.

Helduen euskalduntze ikasturtea abian jarri da dagoeneko eta Azpeitiko Udalak euskara ikasi, iraka-tsi edota hobetzeko ahaleginetan ari diren herritarrei aitortza egin nahi izan zien eta Sanagustin Kulturunean bildu ziren guztiak. Izan ere, ikasturte berrian 150 heldu ari dira euskara ikasten edota hobetzen; Euskaltegian 105, Auzokon 10 eta Mintzalagun ekimenean 35 herritar; eta Azpeitiko Udalak, guztiak zoriondu nahi izan ditu.

"Edozein hizkuntza ikastea garrantzitsua da, baina gure kasuan, hizkuntza minoritarioa izanik, transmisioa funtsezkoa da"

"Azpeitiko Udalak balioan jarri nahi du euskara ikasteko, praktikatzeko edota erakusteko egiten ari zireten ahalegina. Edozein hizkuntza ikastea garrantzitsua da, baina gure kasuan, hizkuntza minoritarioa izanik, transmisioa funtsezkoa da. Udalak euskararen aldeko apustua egiten du, eta esfortzua ere, urtero aurrekontuetan zati handi bat bideratu eta ikasi nahi dutenek doan egin ahal izateko", agertu zuen Eneko Etcheberria alkateak.

Oroimena eta elkarbizitza sendotzeko pauso gehiago

Azaroaren 10ean elkarretaratze isila egin zen eta EH Bildu eta EAJ alderdiek adierazpen instituzionala onartu zuten



 Azaroaren 10ean Azpeitiko plazan egin zen elkarretaratzea.

Oroimen eta Bizikidetzaren eguna da azaroaren 10a eta Azpeitiko Udalak egun berezia ospatu zuen herritarrekin. EH Bildu eta EAJ alderdiek batera deituta, elkarretaratze isila egin zen azaroaren 10ean eta bertan, 100 herritar inguru bildu ziren. 15 minutu igarota, txalo artean bukatu zen ekitaldia.

“Oroimen eguna garrantzitsua da guztiontzat. Azken legegaldian pausoak eman ditu Udalak bizikidetzari dagokionez, eta orain, urrats bat gehiago ematea lortu da: Egia eta errekonozimendu eskubidea pixkanaka aitortzen saiatu gara, eta beste pauso bat genuen emateko Udala osatzen dugun taldeok; oroimenaren aldeko pausoa”, agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

Ekarretaratzearen aurretik ezohiko bilkura egin zen eta adierazpen instituzionala onartu zen. Hona hemen bi alderdi politikoek adostutako adierazpen instituzionala:

“Gaurko eguna bizikidetzaren aldeko apustua indartzeko beste pauso bat emateko erabili nahi dugu. Azpeitiko Udalean ordezkariak gauden alderdi politikoentzat lehentasuna da oroimenean oinarritu behar diren bakea eta elkarbizitza lortzea, eta bide horretan gure konpromisoa adierazi nahi dugu; denok eraiki behar ditugu zubiak, denok dugu elkarrekin bakean bizitzeko eskubidea, askatasunean eta inor baztertu gabe.

Hamarkada luzeetan azpeitiarrak asko sufritu dugu. Aranzadi elkarteak gure herrian egindako lanketek, hamarkada luzeetan biolentzia ezberdinek eraginda mota guztietako giza-eskubideen urraketak sufritu dituzten herritarren errelatoak jaso dituzte.

Jabetzen gara, zerrendatutakoak baino biktima gehiago daudela. Beraz, emandako pausoa osatu beharreko lan baten hasiera da; tamalez, gaur egungo urraketak ere gehitu behar dizkiogu. Denok, ‘egia’ osoa jakiteko eskubidea dugu eta honi behar bezala erantzuteko konpromisoa hartzen

du Azpeitiko Udalak, eta horretarako elkarlanerako eskua luzatu nahi dizuegu herritarroei ere.

Oroimenarekin eraiki nahi dugu etorkizuna, eta sufrimendu guztiak aitortu nahi ditugu, ez dugu sufritu duen inor baztertzetik nahi. Iraganera sakon begiratu behar dugu, espiritu kritikorekin eta zintzotasun osoz atzera buelta gabeko mina jaso duten herritarrei min horren aitortpena egiteko. Adierazpen honekin guztiei errekonozimendua egitea nahi diegu.

Ezin dugu iragana aldatu, baina bai etorkizuneko lezio sakonak atera, gertatutakoaren kontzientzia izan, berriro gertatu ez dadin. Elkarbizitza eraikitzea denon ardura da eta horren aldeko konpromisoa zabala behar dugu. Bakoitzak bere esparrutik, elkarrekin errespetuz bizitzen ikasi behar dugu, etorkizun oparoago baten oinarriak finkatu ditzagun.

Azpeitiko Udaleko ordezkariok, gaurkoan, konpromiso publiko bat hartzen dugu: gure esku ditugun bitarteko guztiak jartzen jarraituko dugu, gure herriko memoria konpartituta, elkarbizitzaz eta errespetuz, gure herria eraikitzen jarraitzeko”.

Bizikidetzaren jardunaldiak

Foru Aldundiak antolatuta, “Bizikidetzaren lantzen” jardunaldiak egin zituen Donostian. Gipuzkoako 30 udalerririk hartu zuten parte bertan, Azpeitiko bane, eta elkarbizitzarako proiektuak aurkeztu ziren. Ondoren, Baketik egindako bizikidetzaren inguruko testigantzen bideo bat eman zuten eta Azpeitiko Udalak abian jarritako Herritarren Foroa eredu-tzat jartzen da bertan. Bideoan agertzen dira besteak beste, Alaitz Aguadok Manoli Uranga, Joxe Arregi, Mertxe Urtuzaga eta Eneko Etxeberria alkateak.



 Antxietako kideak Udaleko eta Aranzadiko arduradunekin.

Antxieta arkeologi taldea; 50 urte aurkikuntzez eta historiaz beteta

Urte hauetako istorioak biltzen dituen liburua aurkeztu du Azpeitiko taldeak

Antxieta arkeologi taldea, 50 urte lanean gozatuz liburua aurkeztu du arkeologi taldeak. Bertan, 50 urteetako historia eta istorioak bildu dituzte. Izan ere, afizio hutsean hasi baziren ere, taldeak arkeologia munduari egindako ekarpenak oso garrantzitsuak izan dira, Ekain, Ezkuzta, Irikaitz edota Erlaitz bezalako aurkikuntzak egin baitituzte Azpeitiko kideek.

“Zalantzarik gabe, etorkizunean ere Antxietako taldea ezaguna izango da. Arlo arkeologikoan, nik ezagutzen dudanez, ez dut uste horrelako aberastasuna biltzea lortu duen talderik egongo denik. Seguru azpeitiar egoskorkeriak bultzatuta lortu dutela hainbeste urtetan jarraitzea”,

agertu zuen Eneko Etxeberria alkateak liburuen aurkezpenean.

“Jende ugari biltzen da taldean 50 urte haue-tan, eta denek eman diote bizia taldeari, arkeologiari poza eta ilusioa emanik. Talde amateur gara, beti izan gara, inork ez du ikasketarik eta hori oztupo txiki bat da baina hasiera hasieratik taldeak babes handia izan du. Imanol Elias zena eta Jose Migel Barandiaranek laguntza handia eskaini ziguten hasieran eta Aranzadi eta administrazio publikoek ere laguntza eman digute. Eskerrik asko denek”, azaldu zuen Iñigo Olarte Antxietako kideak.

Aranzadi Zientzia Elkarteko Juntxo Agirrek Antxieta taldea goraipatu nahi izan

zuen ere goraipatu zuen; “Aranzadiak askotan jo dugu Antxietak egindako aurkikuntzetara, sinesgarritasuna duen taldea baita” esan zuen. Ekitaldiarekin amaitzeko, alkateak hiru oroigarri banatu zituen; Rafael Rezabal Antxietako kide ohiari, Maria Jesus Arregi, Andoni Albizuriren alargunari eta Jabier Lazkano egungo kide beteranoari. “Gaurko honen helburua ez da atzera begiratzea, eta txaloak jotzea egin duten lanagatik, eta hor geratzea. Gaurkoan Antxietakoei indarra bat sartzea nahi diegu, energia dosi bat eman nahi diegu aurrera jarraitzeko, beste 50 urte ospatzeko eta gure herriaren historiaren ezagutza sakontzen jarraitzeko”, amaitu zuen Etxeberriak.

Hona hemen Azpeitiko Udalak azken hilabeteetan egin eta hasi dituen obra desberdinen informazioa;

1.- HAINBAT BASERRI BIDE ASFALTATU DIRA



Azpeitiko Udalak herriko hainbat baserri-bide asfaltatu eta txukundu ditu landa eremua indartzeko helburuaren baitan. Eizmendi auzoan, Izarraitz auzoan, Murgil-Atxumariaga bidean, Eizagirre auzoan, Odria auzoan, Oñederra eta Bikendi baserrietako bidean egin ditu lanak Azpeitiko Udalak. Bideak asfaltatzearekin batera, baserrietara joateko aldapak ere garbitu ditu Udalak. Asfaltatze eta txukuntze lanek, 320.000 euroko aurrekontua izan dute.

Udal Gobernuaren helburua da landa eremuan bizi diren herritarren bizi-kalitatea hobetzea. Azpeitian, guztira 100 kilometro baino gehiago daude pabimentatuta baserri bideetan eta bide horiek egoera onean mantentzeko urtero 200.000 euro inguru bideratzen ditu Udalak. Aurten, ahalegin berezia eginez, 300.000 eurotik gorako inbertsioa egingo du. Gainera, urte honen amaieran 2016an zehar egingo diren egokitze lanetarako diru laguntzak eskatuko ditu.

2.- EUSKAL ONDARE NATURALAZ SENTSIBILIZATZEKO PARKEA



Ingurugiro Etxea Museoak parke berria izango du. Azpeitiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean "Xaguxatar" izeneko proiektu berriaren lanak hasi dituzte, eta euskal ondare naturalaz sentzibilizatzeko helburua izango du. Gune berriak, saguzarra izango du irudi bezala eta 6 gune desberdinetan banatuta;

- Saguzarren horma; gaueko paisaia izango duen irudia edo murala izango da eta, helburu estetikoaz gain, saguzarrek gauez hegan egiteko erabiltzen duten radar sistema islatuko duen jolasa ere izango da.
- Enbor bertikalen baratz; 8 eta 10 metro altuera enbor hauetan, armiarmaren itxura duen sare batez lotuta egongo dira.
- Labirintoa; pertzeptzio sensorialen bidez jolas egiteko gunea izango da.
- Intsektuen hotela; eraikinen etxaurrean, kuadro moduan ezarriko den saguzarren habiak dira eta ehundura aberastasun handia izango du.
- Egongune alternatiboa; egurrezko eserleku eta mahai alternatiboez egindako egongunea.
- Haur jolasak; saguzar itxura izango duen rokodromoa izango da.

Parke zaharrean zeuden dinosauroak Udalak bere biltegian gordeta ditu eta etorkizunean eurekin zer egin edo non kokatu daitezkeen aztertzen ari da.

3.- EURI-URAK BIDERATZEKO LANAK



eskualab ondoan urbanizazio berria egiten hasi dira eta gune horretako euri-urak ibaira bideratzeko lanak hasi zituen Azpeitiko Udalak orain hilabete. Hormigoizko metro eta erdiko tuboak sartu behar dira gune bateko euri-urak beste aldeko ibaira eramateko. Art Eraikuntzak enpresa ari da egiten obrak eta urte amaierarako edo 2016 urte hasierarako, bukatuta egotea aurreikusten dute Udal arduradunek. Lanen aurrekontua 295.319,17 eurokoa da.

Loiolako liburutegia ikasleentzat zabalik



Loiolako Santutegiko liburutegia abendua eta urtarileko asteburuetan zabaldua egongo da Azpeitiko Udalak eta Loiolako Erretoretzak lortutako akordioari esker. Honela, unibertsitateko azterketak prestatu behar dituzten ikasleek Loiolako instalazioak erabili ahal izango dituzte honako asteburuetan: abenduak 26 eta 27 eta urtarrilak 2, 3, 9, 10, 16 eta 17. Loiolako liburutegiaren ordutegia 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:00etara izango da.

Elikadura jasangarriaren irudiak, sarituak

Azpeitiko Argazki Elkartearen eta Lagun Onak Mendi Bazkunaren laguntzarekin antolatutako Gure inguruari begirada bat argazki lehiaketaren XIV. edizioko sariak banatu ditu Udalak. Hiru arlotan banatu da aurtengo edizioa: bertako produktuen azoka eta feriak, elikadura eta festak eta elikagaien ekoizpen guneak, eta irabazleak honako hauek izan dira; Igor Froilan, Valen Garcia, Juan Carlos del Pozo, Alberto Beloki, Mikel Zengotita, Jexux Artola, Iñaki Etxenagusia, Juan Luis Odriozola eta Inazio Javier Bastida. Irabazle bakoitzak 100 euroko saria eskuratu du.



Jostailu sexistarik ez haurrei

Gabonak iristearekin batera, Azpeitiko Udalak, Hezkidetza Foroan proposatutakoetatik abiatuta, jostailu ez sexisten aukera bultzatzeko kanpaina jarri du abian. Hala, Zer da, mutila ala neska? liburuxka banatu da etxetik etxetik, jostailuen inguruko hausnarketa eta hainbat gomendio jasotzen dituen. Herriko jostailu dendeekin, gurasoekin eta ikasleekin ere landu dute gaia. Gaztelekuan eta ludoteketan ere ekintza bereziak egin dira azken egunetan.





AZPEITIA SANTO TOMASAK 2015

ABENDUAK 21

ABENDUAK 18 OSTIRALA

19:00etan, **KANTU JIRA**, herriko kaleetan zehar.

ABENDUAK 19 LARUNBATA

23:00etan, **SKASTI ETA GRISES** musika taldeak Sanagustin Kulturgunean.

ABENDUAK 21 ASTELEHENA

SANTO TOMAS EGUNA

10:00etan, **IZARRAITZ TXISTULARIEN** eskutik diana kaleetan zehar.

10:30etan, Frontoi Txikian **PATXI AZKARGORTA PILOTA MEMORIALA**

Aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak.

11:00etan, **UDAL MUSIKA BANDA**ren kalejira

Ordu berean, **ELCIEGOKO GAITEROAK** ibiliko dira kaleetan zehar.

12:00etan, **XXXIII. ANTZERKI TOPAKETARAKO**

SARI BANAKETA ospatuko da Udal Areto Nagusian. Aurtengoan, irabazle **GORAKADA** antzerki taldea izan da "Moby Dick" izeneko antzezlanarekin.

BERTAKO PRODUKTUEN AZOKA

Goiz osoan zehar. Azoka Plazan izango da erakusketa hau.

12:00etan, **AIZKOLARI, HARRIASOTZALE JAIALDA**

PLAZA NAGUSIAN

Herri kirolen ekitaldiari hasera emateko

Juan Joxe Unanue "Goenatxoli"ri merezitako omenaldi berezia egingo zaio Plaza Nagusian udal ordezkarien eta herri-kirolzale diren guztien artean.

AIZKOLARIAK

• MIKEL LARRAÑAGA • OLASAGASTI

HARRIASOTZALEAK

• ESTITXU ALMANDOZ

• GOENATXO III

• AIMAR

• IDOIA ETXEBERRIA

AURKEZLEA: JUANJO SAGASTIBELTZA

Ordu berean, **BERTSOLARIAK**, Plaza Nagusiko Kioskoan

- Maialen Lujanbio

- Amets Arzallus

Sebastian Lizaso, gai-jartzailea

ITSASIKO Ttuntturroen eta MUSIKA ESKOLAKO soinu-joleen kalejira.

13:00etan, **Erraldoiak, Buruhandiak eta Dultzainariak** kaleetan zehar.

18:00etan, **GAZTEEN XV. DANTZA-SUETOKO**

AZPEITIKO TXAPELKETA SANAGUSTIN KULTURGUNEAN

URTERO BEZALA, EGUN OSOAN ZEHAR, TXORIZDA ETA TALOA JATEKO

AUKERA IZANGO DA PLAZAN EGONGO DIREN POSTUETAN.

BESTALDE, SAIA GAITEZEN HERRITAR GUZTIOK BASERRITARREZ JANZTEN SANTO TOMAS EGUN HONETAN.



Azpeitiko Udalak del egiten dizue azpeitiar guztiei oraso sexisten aurpegi-jarriak aktiboa har dezazuen. Eraso sexisten aurpegi-jarriak 112 eta 943 151313.

azpeitia
udala